



## OTSAILERAKO JARDUERAK

Urtebete baino gehiago igaro da (azken batzarra 2019ko abenduaren 3an egin genuen), elkarrekin azkeneko aldiz egon ginenetik. Pandemiak aurrez aurreko bileretatik urrun mantentzen gaitu, baina horrek ez du eragozten gure inguruan gertatzen denari arreta jartzea, kezkatuta eta, batzuetan, baita senide eta lagunen galera eragiten duen birusaren ondorioekin larrituta ere. Bada, lehenik eta behin, gure maitasuna egoera horretan egon zaretenoi.

Denbora luze honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Federalisten Elkarteko Zuzendaritza Batzordea saiatu da gar federalista bizirik mantentzen, batez ere neurri garrantzitsu batean pandemiaren lehen etapako kudeaketari hobeto aurre egiteko lurralde-antolamenduan zentratutako eztabaida politikoetan, edo etorkizunari begira susperraldi ekonomikoa eta soziala nola programatu berreraikuntzarako funts europarretatik gaia eztabaidan jarritz.

Horregatik, eztabaidak eta solasaldiak antolatu ditugu, eta horiei buruzko informazioa eman dizuegu, newsletter honen bidez. Hala, gogora ekar ditzakegu hiru hiriburuetan Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutu berriaren aurreko egoera aztertzeke egin genituen mintegiak (azkena Gasteizen, iazko urtarrilaren 17an), ekainaren 28ko "pandemia eta ikuspegi federala" modu birtualean egindako solasaldia, abenduaren 9ko "berreskurapenerako funts europarra – Europa federalago baterako urratsa" gaiari buruzkoa, eta azken webinarra, berreraikuntzarako Europako funtsen banaketari buruzkoa, aurtengo urtarrilaren 13an egindakoa; Alternativas Fundazioaren eta Asociación Por una España elkartearen artean antolatutako ekitaldia izan zen hori. Ekitaldi horien grabazioak eta komunikabideetan egindako hainbat esku-hartze <https://federalistak.eus> webgunean daude kontsultagarri.

Jarduera horiekin jarraituz, **otsailaren 18an** topaketa birtual bat egingo dugu, Zoom plataformaren eta [gure You Tubeko kanalaren](#) bidez, **Antonio Arroyo Gil** irakaslearekin, **El sistema federal de Alemania: una visión actual** izenburupean. Antonio Arroyo Gil Zuzenbidean doktorea da Madrilgo Unibertsitate Autonomoan (UAM) eta Zuzenbide Konstituzionaleko irakaslea unibertsitate berean. Egonaldiak egin ditu Berlingo Trier eta Libre unibertsitateetan eta Berkeleyn. Federalismoari eta bereziki federalismo alemaniarrari buruzko hainbat argitalpenen egilea da. Horien artean, "El federalismo alemán en la encrucijada (sobre el intento de modernización del orden federativo en la República Federal de Alemania)", zeinarengatik deszentralizazio politiko eta lurraldetarrari buruzko ikerketa-lanetarako Manuel Giménez Abad lehenengo saria lortu baitzuen 2006an; eta "La reforma constitucional del federalismo alemán (Estudio crítico de la 52ª. Ley de modificación de la Ley Fundamental de Bonn, de 28 de agosto de 2006)", zeinagatik Kataluniako Generalitateko Institut d'Estudis Autonòmics institutuko Josep María Vilaseca i Marcet saria eskuratu zuen (ex aequo). Kontsulta dezakezuen azken artikuluetako batek, hain zuzen ere, ["El federalismo alemán a comienzos del siglo XXI"](#) gaia jorratzen du.

Otsailaren 25ean gai honekin jarraitzeko asmoa dugu, **Alemanian pandemiaren kudeaketan gobernuen arteko lankidetz**a nolakoa izan den beste bi aditurekin aztertuz. Horietako bat **Cesar Colino Cámara** da, gaur egun UNEDeko Politika eta Administrazio Zientziako Departamentuko irakasle titularra. Ikertzaile kontratatua izan da Administrazio Publikorako Ikerketa Institutuan, Speyerren, eta ikertzaile gonbidatua Max-Planck Institutuan, Koloniako Gizartea Aztertzeko, baita irakasle bisitaria ere Darmstadtoko Unibertsitate Teknikoan, eta ikertzaile bisitaria Bordeleko, Kenteko eta Ottawako unibertsitateetan. “Las administraciones públicas en España y Gobiernos y administraciones públicas en perspectiva comparada” koidatzi du, eta baita koordinatu du “Las comunidades autónomas frente a los retos de la política de cohesión europea en la nueva Europa ampliada: capacidades y estrategias” liburua. Ekitaldi honetan parte hartuko duen beste partaidea **Mario Kölling** da, UNEDeko Zientzia Politikoko departamentuko irakaslea eta Manuel Giménez Abad Fundazioko ikertzaile eta proiektuen koordinatzailea. Bere lanen artean azpimarratzekoak dira: “Costes y beneficios de la descentralización política en un contexto de crisis” eta “Formas de participación política en los sistemas de gobierno multinivel y mejora de la calidad democrática”. Friedrich Ebert, Konrad Adenauer, Bertelsmann, Aranzadi Reuters eta Federazioen Fororako proiektuetan nazioarteko aditu gisa parte hartzen du. Gainera, WeltTrends aldizkari zientifiko alemaniarraren kontseilu zientifikoaren parte da.

Gure asmoa da **Elkarrizketa Federal** horiekin jarraitzea **hileko azken ostegunetan, 18:30etan**. Programa honi buruzko informazioa ematen jarraituko dugu. Era berean, jakinarazi behar dizuegu **Euskadin, Espainian eta Europan federalismoaren ahotsa areagotzeko** ahaleginak jarraitzen duela. Horretarako, Europazale eta Federalisten Euskal Kontseilua- UEF Euskadirekin hitz egiten ari gara, eta, horri esker, lehen ekitaldi bateratu bat egin ahal izan genuen abenduaren 9an, hain zuzen berreraikuntzarako Europako funtsari buruzko webinarra. Ondorio gisa, agian bi erakundeok bat egin dezakegu, baina erabakia azken batean elkarteko kide guztion artean hartu behar dugu.

## BATZARRAK MARTXOAN

Ildo horretan, **Elkartearen Ohiko Batzarra datorren martxoaren 4ra atzeratu dugu**: telematikoki Zoom bidez egingo duguna, **eta jarraian berehala ezohiko batzarra egingo dugu** gai hori eztabaidatzeko. Deialdia eta gai-zerrenda behar besteko aurrerapenarekin bidaliko dira, baina komeni da data hori jada azpimarratzea gure agendan.

Ohikoa baino Newsletter zabalagoa bat geratu zaigu, baina espero dugu egindako ekimen guztiak eta hurrengo egutegian agertzen direnak ezagutzeko balio izatea eta zuen parte-hartze baliosua erraztea.

Besarkada federalista bat.

[www.federalistak.eus](http://www.federalistak.eus)